

2007-04-26ko PREMIAKO EZOHIKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta zazpigarren urteko apirilaren hogeita seian, arratsaldeko 20:45ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohizko batzarra egin du Udalbatzak Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: M. Jesus Otaño Zumeta, Agustin Zubeldia Iraola, Eugenio Loidi Garmendia eta Jose Luis Olano Zubeldia.

Ez dira etorri eta ez dute adierazi ezin etorria: Aitor Lasa Olalde eta Gregorio Lasa Etxezarretak.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgiak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

DEIALDIAREN PREMIAZKO IZAERA BERRESTEA.

Alkateak ukitu behar diren gaien garrantzia eta hauen premia azaldu ondoren, udalbatzak erabaki du aho batez deialdiaren presazko izaera onartzea, korporazioko partaideen zilegizko gehiengo osoa osatzen dutenen aldeko botoarekin.

BIGARRENGO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (07-03-06).

2007ko martxoaren 6ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, alkateak bi oharpen egiten ditu:

- Batetik, komenigarria iruditzen zaio 24/07 dekretuari buruz egiten den aipamenean, zerga ordaintzetik salbuestea onartzeari buruzkoa, 2007. urtetik

kontatzen hasiko den egoera dela gehitzea. Nahiz eta dekretuan bertan puntu hau argi dagoen, hemen ere azaltzea ongi etorriko litzateke.

- Bestetik, hirugarrenko puntuari dagokionez, aipatzen den erreka ura garbia dela argi gelditu behar da eta gero tratatzen den ura ez da bertara isuriko, horko menditik datorren ur garbia izaten jarraituko du.

Udalbatza ados dago eta oharpen hauek egin ondoren, aho batez erabaki du bigarrenko puntu hau onartzea.

HIRUGARRENGO GAIA

ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA

- 2007-03-07ko 25/07 Dekretua: otsailari dagozkion fakturak onartzea, 23.676,28 €, bai eta 16. gunea hiritartzeari dagokion 1.441,87 €ko bigarren zertifikazioa eta Iñaki Etxeberria Izagirrerri 9.090 € arau subsidiarioen lan sariaren %15ari dagokiona.
- 2007-03-07ko 26/07 Dekretua: Jose Ignazio Balerdiri etxeko teilatua konpontzeko baimena ematea.
- 2007-03-07ko 27/07 Dekretua: M. Jose Aizpuru Larrarteren ordezkia kontratatzea bere ezgaitasunak irauten duen bitartean.
- 2007-03-07ko 28/07 Dekretua: Idoia Olano Goikotxearen ordezkia kontratatzea bere ezgaitasunak irauten duen bitartean.
- 2007-03-08ko 29/07 Dekretua: mediku kontsultategi berriko obraren hirugarren eta azken ziurtagiriaren onartze eta ordainketa.
- 2007-03-13ko 30/07 Dekretua: Bixente Otegi Lizasori, kale nagusian bi pasabideren obra egiterakoan jarri zuen 1.000 €ko fidantza itzultzea.
- 2007-03-14ko 31/07 Dekretua: Korrika 15.aren kilometro bat erostea.
- 2007-03-15eko 32/07 Dekretua: Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteak aurkeztutako S-1 sektoreko 2. partzelako xehetasun azterketari hasierako onespena eman, GAOran bidali eta jendaurreko informaziorako ikusgai jartzea.
- 2007-03-22ko 33/07 Dekretua: Jose Ignacio Balerdiri Zillar Kaleko 6.eko fatxada berritzeko obra baimen eskaera onartzea.

- 2007-03-27ko 34/07 Dekretua: Aitor Iturbe Saizarrek egindako eskaria onartuz, trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbuestea. Salbuespen egoera 2007 urtean hasiko da.
- 2007-03-27ko 35/07 Dekretua: Luciano Lasa Balerdik, lursail bat jatorrizko lursail osotik banantzeko egindako baimen eskaera ez onartzea.
- 2007-03-28ko 36/07 Dekretua: Pablo Lasa Balerdik, lursail bat jatorrizko lursail osotik banantzeko egindako baimen eskaera ez onartzea.
- 2007-03-28ko 37/07 Dekretua: Carlos Garcia Cerezoko, Mikel Goi-aingerua plaza, 2 behean, higiezin agentzia jarduera zabaltzeko baimena ematea, hainbat neurri zuzentzaile betetzera baldintzatuta.
- 2007-04-10eko 38/07 Dekretua: 149 E-ri ezinduei ibilgailua aparkalekuan uzteko txartela emateko egindako eskaera onartzea. 2012.04.11ean berritu egin beharko du.
- 2007-04-10eko 39/07 Dekretua: Damian Iurrita Antiak egindako eskaria onartuz, trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbuestea. Salbuespen egoera 2007 urtean hasiko da.
- 2007-04-16ko 40/07 Dekretua: martxoari dagozkion fakturak onartzea, 30.425,35 €, bai eta Ikasi SL-ren 2.544,04€ko faktura, osasun zentruko altzariei dagokiena eta Iñaki Arregi Gatitanoren 1.818€ko faktura, osasun zentruko obra zuzendaritzari dagokiona.

Udalbatzak aho batez bere adostasuna erakutsi du guztiekiko.

LAUGARRENGO GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, 2006 URTEKO AURREKONTUAREN

LIKIDAZIOA.

Idazkari-kontuhartzaileak laburpen bat egiten du 2006.eko aurrekontuetako ezaugarri nagusienak aipatuz, hots, amaierako emaitza orokorra, izandako kreditu aldaketak, zertan gastatu den, sarreren jatorria, gelditzen den egoera, eta abar,... honetarako, 2006ko aurrekontuen likidazio dekretua osatuko duten ildo nagusiez baliatuz.

Udalbatzak aho batez erabaki du 2006 urteko aurrekontuaren likidazioa onestea.

BOSGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, 2007 URTERAKO AURREKONTUA

Alkateak 2007 urterako udal honetako aurrekontua proposatzen dio udalbatzari. Aurrekontu egitasmoarekin batera, idazkari-kontuhartzailearen txostena banatua izan da non era sintetikoan 2007rako aurrekontuaren ildo nagusiak azaltzen diren. Aurrekontua honela osatua dago:

Sarrerei dagokionez:

KAPITULUAK	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	363.000,00
2	Zeharkako zergak	141.257,98
3	Tasak eta bestelako sarrerak	166.500,00
4	Transferentzia arruntak	681.254,79
5	Ondarezko sarrerak	9.000,00
6	Inbertsio errealak inorenganatzea	280.468,25
7	Kapital transferentziak	60.000,00
8	Aktibo finantzarioak	0,00
9	Pasibo finantzarioak	1.000,00
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA		1.702.481,02

Gastuak, bestalde:

KAPITULUAK	IZENDAPENA	EUROAK
1	Pertsonal-gastuak.	557.614,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan.	562.680,00
3	Finantza-gastuak.	2.000,00
4	Transferentzia arruntak	185.600,00
6	Inbertsio errealak.	291.087,02
7	Kapital Transferentziak.	94.500,00
8	Aktibo finantzarioak.	1.000,00
9	Pasibo finantzarioak.	8.000,00
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA		1.702.481,02

Alkateak gastu eta sarreren kapituluaren nondik norakoak azaldu ondoren eta zein inbertsiotara bideratuko den 2007ko aurrekontua, Udalbatzak aho batez erabaki du 2007. urteko aurrekontu orokorra onartzea.

SEIGARREN GAIA
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2007 URTERAKO PLANTILLA
ORGANIKOA ETA LANPOSTU ZERRENDA

2007rako ez dago aurrikuspen berezirik, 2006 urteko berbera aurrikusten da aldaketa bakar batekin: 2006 urtean zehar osoko bilkurak onartutako idazkari-kontuhartzailearen maila igoera kontuan hartzen dela oraingoan. Honenbestez, Udalbatzak aho batez erabaki du 2007. urteko plantilla organikoa eta lan postu zerenda onartzea

ZAZPIGARREN GAIA
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA TELELAGUNTZA
ZERBITZUAREN KUDEAKETA ESLEIPENERAKO

Ikusirik udal gizarte langilearen txostena, Eudelek igorritako idazkia eta bere baliagarritasuna kontuan izanik, Udalbatzak aho batez erabaki du Irurako udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko telelaguntza hitzarmena sinatzea eta teleasistentzia arautzen duen udal araudia behin behineko izaeraz onartu.

ZORTZIGARREN GAIA
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, S-1 SEKTOREKO BIGARREN PARTZELAREN
XEHETASUNEZKO ESTUDIOA

2007ko martxoaren 6ko osoko bilkuran onartu zen ikastetxe berrirako lehiaketaren esleipenaren ondorioz, esleipendunak eragindako xehetasunezko estudioa aurkeztu zen eta 2007ko martxoaren 15ean emandako dekretuaren bidez, Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteak aurkeztutako S-1 sektoreko 2. partzelako xehetasun azterketari hasierako onespina eman zitzaion, 2007ko martxoaren 27an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri zen eta ondorengo 20 egunetako epean ez zen inongo alegaziorik aurkeztu. Udal aholkularia den Iñaki Etxeberria Izagirre arkitektuaren oniritzia jasotzen duen dokumentua ere atxikitzen da.

Udalbatzak aho batez erabaki du, S-1 sektoreko bigarren lur sailaren xehetasunezko estudioa behin betiko onartzea.

BEDERATZIGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, ARAU SUBSIDIARIOETAKO 5.

AKTUAZIO UNITATEKO BORONDATEZKO BIRPARTZELAZIOA (ISIDRO- Enea Gunea) BEHIN BETIKO IZAERAZ

2007ko martxoaren 6ko osoko bilkuran onartu zen Udalbatzak aho batez eta behin behineko izaeraz onartu zuen arau subsidiarioetako 5. aktuzio unitateko borondatezko birpartzelazioa (Isidro-Enea gunea). Dagokion jendaurreko erakustaldi epea amaitu ondoren eta inolako alegaziorik aurkeztu ez denez, udalbatzak aho batez behin betiko izaeraz onartzen du aipatutako borondatezko birpartzelazioa.

HAMARGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, UEMAKO ESTATUTUEN ALDAKETA

UEMATik igorritako idazkian adierazten denez, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko Batzar Nagusiak, 2004ko urriaren 16ko bilkuran, bere estatutuen 1, 4 eta 23. artikulua aldatzea onartu zuen. Prozedurarekin jarraituz, hurrengo urratsa, mankomunitatea osatzen duten udalek onespina ematea da. Udalbatzak aho batez bere onespina ematen dio aipatutako estatutuen aldaketari.

HAMAIKAGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, IRURAKO UDALEKO EUSKARA PLANA.

Irurako Udalak indarrean dagoen arautegia zein bere eskumeneko eremurako emandako jarraibidea betez, berari dagokion euskararen erabilera normalizatzeko, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta herri administrazioetan euskararen erabilera indartu eta areagotzeko asmoz, Udalbatzak aho batez onartu du Irurako Udaleko Euskara Plana.

HAMABIGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, UDALTALDE21 –ERI DAGOKION EKARPENA EGITEA.

Irurako Udalera, Udaltalde21-ek igorritako ordainagiria heldu zen. Berau, Tolosaldeko Mankomunitatean teknikari koordinatzailearen ordaintzeaz gelditzen diren gizarte segurantzaren eta IRPF-ari buruzkoak ziren. Zenbatekoa, 194,90 € da.

Udalbatzak aho batez erabaki du, Udaltalde21-ek igorritako faktura ordaintzea.

HAMAHIRUGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, TOLOSALDEA GARATZEN ERAKUNDEARI EGIN BEHARREKO EKARPENAREN LEHENENGO ZATIAREN ORDAINKETA.

2006ko abenduaren 18ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, Irurako Udalak egin beharreko ekarpena, 6.262,00 €koa da. Ordainketa bi zatitan egingo da. Lehenengo zatiaren zenbatekoa 3.131,00 € delarik.

Udalbatzak aho batez onartu du, Tolosaldea Garatzen erakundeari egin beharreko ekarpenaren lehenengo zatiaren ordainketa egitea.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 21:40ean eman da amaitutzat bilera. Hanesandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.